

23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



'PAPEREZKO BIZITZAK' IPUIN-LEHIAKETA

BASA MORTU, ARROTZA ABORTU

Irundik Baionara, 2024ko martxoaren 14tik 24ra

Paperik gabekoari tinta bat izerdi:

Paper honetan izerditan begiesten dituzun hizki hauek ez dira zeinu soilak, jentilekin ere beldurtzen ez diren ene ele ausartak baizik, paper zuriko basamortua zeharkatzeko adorea dutenak. Letra bakoitzak bere erritmoa du, bere logaritmoa, algoritmoa. Letra batzuk hanka arinak dituzte, amen batean egiten dute hanka nola igela; i letra adibidez, hondarretan ia arrastorik uzten ez duena da. Beste batzuk motelak eta astunak dira, Perurenaren harria baino astunago mintzatzen diren bikiak, euskaldun petoak biak, errege euskaldunak, tira. Haien oinekin eztarria urratzen dute, rr-ak harearen arrakaletan

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus

23.korrika



Irundik Baionarat

2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



hondoratuz eta konometroa erresuminez errez. Badira bakarrik aurrera doazen letrak, erbiaren abiadura bete azelerazio dutenak, hala nola, a hizkia, hitz bat osatzeko nahikoa dena, batzuetan hura determinatzen duena eta beste batzuetan, hitzen ipurdiko ileetan zorriak bezala itsasten dena, a itsasi horren askoren ahanzturak hizkuntzaren azkura eragiten duena. *K* erraz errenditzen ez den letra da; nahiz eta hareak aurrera egitea eragotzi, badaki erresistentzia izan behar duela erorketen erredurak erlaxatzeko. Minaren arreta bihurritzen duen paisaia da, ingurukoarekin inspiratzen den figura, haizez ferekatutako Oteizaren duna. *O* gurpilei jarraika korrika doan letra oparoa da, basamortuaren erdian bizirauteko oasia, gauez arineketan irauten duen ilargia, gurpilean arnasa bete ezinik geratzen ez den hamsterraren energia, gertuko guztiak haren errendimendu eta lastertasunarekin aho zabalik uzten dituen sinergia. Itzuli bakoitza erronkaren harri koskorra da, eta lasterkariak oreka eta kontzentrazioa mantendu behar ditu sabeleko bareak korroskada ez botatzeko.

Hizki horiek guztiek orri zuriko basamortuan aurrera doan karabana bati jarraitzen diote. Haien artean hertsatzen dira eta euskararen izerdian labaintzeko, lasterketa txirrista jolas bihurtzen dute. Basa

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus

23.korrika



Irundik Baionarat

2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



mortu, arrotza abortu. Administrazioak soa metro gutxi batzuetara mugatzen duela aldarrikatu nahi dugu, eskubide berdintasunaren dimentsioa ezin dela izerdi artean estutu. Paper zuriko desertua ez da bide erraza, aisea; estropezuz beteta dago, eta horrek zaildu egiten du nire letren lasterketa. Konpromisoaren balantza, inklusioaren arantza; arretaren arrena, diruaren galerna. Letrak gelditu, galdu, ezabatu, aldatu, nahastu egiten dituzte administrazioko harri pusketek; behaztopatu, hitzak haien kostu, askoren ametsak moztu, begien gorria puztu, esperantzaren luze-zabalera hustu. “Ezina ekinez egina”, “gustuko tokian, aldaparik ez” eta “non gogoia, han zangoa” atsotitzek amorez umeldu dute amorruren amua. Korrikalariek ez dute amore ematen, hizkuntzaren intentsitatea sentitzen dute bihotzaren dardar bakoitzean. Hizkiak aurrera doaz, paper zuriko basamortuan korrika eta zuk, noski haren atzetik jarraitzen duzu, hori espero dut, bederen. Oraindik hemen zaude, ezta?

Irakaskuntzaren zilbor-hestea doakoa izan behar da, euskararen sabeletik paperik gabekoak irteteko, AEKtik herritar guztiak jaiotzeko, euskaldun bihurtzeko, eskubideekin bizitzeko eta paperen gogoarekin askatzeko. Mikel Laboa gorpuztu da paper honetan: “Bi kate, biak ebaki beharrezkoak:

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus

23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



bat gorputzaren bizitzeko, bestea gogoaren askatzeko". Gure gorputza forma bat baino gehiago da, ahoa ere badelako, bihotza ere badelako, burua ere badelako, hankak ere badirelako; bibrazioa, dardarizoa, deklarazioa, negoziazioa, desioa, pasioa. Batasuna da jaioberria, harro dago herria, lotu lokarria, mugitu gerria. Zain duzu taldea, besoak zabalik; letrak martxan dituela, paper zuriko desertua izerdi itsaso bihurtzen. Hara! Baiona, hemengo kostak bai ona! Orain banoa, korrika eta zu ere, has zaitez hankak astintzen nirekin batera! Hizkiak diren nire atletak zure bihotzaren helmugara iritsiko direlakoan,

Tipi-tapa, taupa-taupa,
Korrika

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus